

EUSKAL ANTZERTI FOLKLORIKOA EUROPAKO HERRI TRADIZIOEN ADIERAZPEN BEZALA

Iñaki Mozos Mujika

IRALEko irakaslea

Kontu ezagun-ezagunei buruz, berritasunik bat ere gabeko gertaerez hitzegiteak dakartzan arrisku nabarmena onarturik, agiri-agirian egon litezkeen zenbait gauza esatera natorkizue. Inor gutxi ukatuko du gaurregun euskal teatro tradizionalaren balio anitza. Baina asuntuak ez dut uste, gertaera literario horren ezagutze formal hutsez edo, hobeto esanda, teoria hutsean oinarriturik, asebeteko gaituenik. Arazoa, egon ere, herri kultur produkzioen errealitatearen jabetzan baino, produkzio horien analisirako formulabide egokiak bilatzean bait dago.

Herri literaturaren ekoizpenen analisiak agertzen dituen berezitasunen artean bada bat, bai analisia, bai gertaeraren formulazio posibleak zeharo baldintzatzen dikuena: kolektibo baten lanaren emaitza izatea, txertaturik dagoen gizartearen bilakaerari erabat lotua. Elementu horiek, bakarra ez izanik ere, eragin sakona izan du. Zuberoako antzerki folklorikoaren garapenean zehar, herri tradizioaren gauzapenean. Hala eta guztiz ere, eragin hori, adierazpide dramatikoaren azterketetan nahikoa kontuan hartu gabe laga dugulakoan nago eta, gauden garai hauetan, ezinbesteko iruditzen zait gertaeraren formulazio egoki eta praktikoagoak bilatzen salatzea. Testu txiki honek bide horretan aurrera egin nahi luke, esan bezala, ezer berriak erakutsi gabe baina erreflexiorako zenbait puntu azalduz eta berrikusiz

Azken hamarkada honetan egin diren ikerkuntzei esker esan genezake, oraingoz behintzat, tradizio dramatiko honen sortze ingurua definitu samarra dugula, zenbait uste oker eta baleztapen arin baliogabetu direlarik eritzi oinarrituago batzuren faborean.

Laburki zerrendatuta hauek lirateke gai horretaz onar genitzakeen oinarritzko ideiak (1): Zuberoako antzerki folklorikoa nahikoa berri edo modernoa da, orain ezagutzen ditugun materialen arabera (eskuizkribu edo libretoak XVIII. mendetik au-

rerakoak dira, bertan ez bide dago hizkuntz forma arkaiko edo zahar kutsu handirik etab.). Hala ere, lehenago teatro herriarrik egon bazegoen, informazio izpi labur eta testigantza apur batzuek erakusten diguten bezala, nolakoa zen ordea, ezin jakin dugularik. Esan daiteke, bestalde, bi elementu edo tradizio dramatikoaren arteko nahasketak eragin duela antzerki horren hedapena, XVIII. mende hondar eta XIX.aren hasera aldera erakusten duen kodearen finkapenaren emaitzaz: batetik, Ertaroko hondakinak, herri nekazarietan zabaldu zirenak (misterioen eragin hori, zenbat eta iparralderago eta ekialderago jota, orduan eta handiago eta zaharragoa da, antzerki bretoian eta Languedoc aldekoan agertzen den bezala); bestetik, Europa mendebaldeko beste herrietan ez bezala, berandu samar sartzen zaizkigun hondakin horiek, Euskalerrian ematen ziren joku parateatral batzuek nahastu dira, zenbait elizkizun edo herri festetan agertzen zaizkigun jokuez alegia.

Itsuenak ere baieztatu lezake gure informazioaren murrizta kontu honetan, baina hala ere, hain oinarri txiki eginagatik, aurrera jarrai dezakegu formulazio egoki baten hila. Esandako tradizio nahasketak sinkretismoa dakarkigu gogora; sinkretismoa gizateriak orokorrean eta Europa mendebaldeko herriek partikularzki izan duten kultur eboluzioaren adierazle bezala, lkuspegi antropologikotik begiratuta zera izango litzateke sinkretismoa: sorrera desberdina duten bi ezaugarri kultural edo gehiagoren sintesia, kultur modu berriak eragiten dituena. Baita ere, kultur gabetze edo deskulturizazio prozesuen manifestazio posibleetako bat, gehien batean mendebaldeko kulturen eta gizarte tradizionalen arteko elkartopatzearen adierazgarria, erlijio eta sinismen arloetan batez ere agertzen delarik.

Zenbait historialarik (2) Errenazimentu garaitik aurrerako Europa mendebaldean, batez ere XVI eta XVII mendeetan ze-

(1) Oihartzabal, B.: La pastorale basque. Edition critique de Charlemagne», ASJU, 1988 25 or. eta jarr.

(2) Besteren artean, Le Roy Ladurie, E.: Le Carnaval de Romans», Gallimard. Poitiers, 1979. «Les paysans de Languedoc», Flammarion. Paris, 1969.

har, zibilizazio nekazari baten esistentzia defendatzen dute. Garai absolutista eta nahasi haietan alde handia bait zegoen populazio nekazarien eta klase boteredun nahiz hirietako biztanleen artean, bai bizimailari, bai kultur mailari begira. Nekazal zibilizazio hori definitzekotan hiru ezaugarri nagusi hauek aipatu ohi dituzte:

Nekazarien errebolta dira lehenengoa. Gatazkak dira gehien batean, herri erabat pobretuen gain ezarritako zerga sistema itogarriaren kontra emanak. Hauen arteko esanguratsuen gure artean, Matalas apaizak Zuberoan zuzendu zuena litzateke.

Festa edo libertimodu berezkoak bigarrena. Itxura denez, garai horretan jotzen du gailurra errealismo grotesko delakoak (3). Herri nekazarien adierazpen estetiko hori hiru adarretan banatu ohi da: hizkuntzaren erabilpen berezia (hiperboleak, errima, errazak, ideia absurduak, eskatologia etab.), herri antzerki komikoak eta ihauteri tradizionalaren nagusitasuna. Guzti honen aztarna garbiak gure artean ihautetako antzerki emanaldien testuetan aurki litezke.

Hirugarren ezaugarri bezala, sinkretismoa bera agertzen zaigu, sinismen mailan bereziki emana. Orduko nekazariengan, bai beren kargu zeuden apaizen ezjakinagatik, bai hizkuntz arazoengatik, bai beste arrazoirengatik, halako nahasketa bat nagusitzen da onartu beharreko arau erlijioso berrien eta beren sinismen tradizionalen artean. Horren lekuko, sorginkeriaren zabalpen harrigarria izango genuke.

Bestalde, denok dakigunez, Erreformaren (gogora dezagun Albretoko Joana, erregin nafarraren «Saint Pansard» izeneko pertsonaiaren omenezko festen debekua) eta Kontrarreformaren (Pierre de Lancre eta beste inkisidoreak) eginkizun nagusia, zibilizazio horren deuseztapena izango da. Honen ondorioz, batzuek «herri alaitasunaren desagertzea» edota «nekazal ihauteriaren desagitea» bezala izendatu dutena gertatuko da; hau da, ideolojizazio errepresiboaren bidez, jendea erlijio dogma berrietara erakartzea (4).

Hala ere, XVII. mende haseran Elizaren Inkisizio bidezko jokaera gogor hori aldatu egingo da, helburua ordea, bere hartan mantenduz. Hemendik aurrera (eta ezin aipatu gabe utzi jesuiten nagusitasuna Eliza Katolikoan dominikoen Kalte-tan, jantsenismoaren agerpena eta euskal literatura erlijiosoaren zabalkuntza iparraldean), Elizak herri xeheari aurkeztuko dion Jainko eredu ez da izango behialakoan bezain gogor eta kastiguzalea; baizik eta, infernu edo deabruen irudiak zertxobait saihestuta, halako irudi miserikordios eta barkatzailea azalduko du, herria damutzeraz bultzatuz. Ez da kasualitatea amabirjinen agerpenak eta erromeria edo peregrinazioak ugaltzea garai hauetan Euskalerrietan.

Herri festak, testuinguru honetan, klerikaldu edo liturjizatu dira eta dogma ofizialekin bat ez datozen libertimoduak debekatuak izan arren, ez dut uste gehiegikeria denik beste halako sincretismo adibide nahikoa garbi baten aurrean geundeekeela esatea. Orduko herri nekazarien zibilizazio tradizionalaren kultur elementuak, nagusitzen ari den kultura ofizialak erabili egingo ditu, nekazari jendea bizimodu berrira, gehien batean antzinako errejimenaren oinarri den Trentoko Kontzilioak ezarritako biziara eta erakartzeko edota makurterazteko. Testuinguru honetan kokatu behar genuke geure antzerki tradizional edo folklorikoaren finkapenaren hasera, gerora, itxura

denez, XIX. mende hasera aldera osatuko zena. Honen adibide labur bi eman dezakegu esandakoa borobiltzekotan: bata, Phantazart ihaute antzerkiaren bertsio bearnesa (1803 urtean euskaratik itzulia) eta Jakes Oihenartek antzeztu zuenaren arteko konparazioan ikusten den obraren eboluzioa eta bestea, Jean de Paris pastoralaren lau ezkribuetan nabari den jenero finkapena (5).

Gertaera sinkretiko edo nahaste itxurako hauek ez dira inolaz ere gurean bakarrik eman. Europa mendebaldeko beste herri batzuetan antzera jokatu zuten teatrogile nekazariak: erlijio zabalkunderako nahiz Bibliothèque Bleue delakotik ateratako gaiak, aspaldiko antzezmodu herritarren markoan emanez. Zuberoako antzertiarena ordea, kasu berezia dugu arrazoi zehatz batengatik: orain arte iraun duela alegia. Beste herri batzuetako antzerki tradizionalak batzuek uste baino luzeago iraun bazuten ere (Biarnon eta Britainian esate baterako), ia erabat itzali zaizkigula dirudi (6).

Hala ere, harrigarria zaigu antzerki rural edo nekazan hain berandura arte mantendu izana. Galari buruzko azterketen murrizta gora behera, lehenengo Mundu Gerraraino iristen dira antzeppenak orokorrean, eta pentsa genezake zerbait gehiago sakonduta ustegabeko bat edo beste izan dezakegula. Iraupen honen arrazoitzat, nekazal herrien izakera tradiziozalea eman izan da (7), zibilizazio modernoak bere baitan hartzen ez duena hain zuzen. Ados egon gintezke, neurri batean behintzat, Georges Hérelle-k esandako honekin: nekazariak, beren antzerki festari zegokiola, konturatu ziren ez zirela bizi beren garakideen ideia eta sentimenduekin batera eta lotsatu egin ziren, garai berrietarako barregerri eta modaz kanpo gertatzen zen teatromodu bat matatzearen lotsatu ere Maite dugunaz lotsatuta gaudenean, maitatzeari utzi eta abandonatu egiten dugu.

Arrazoi horri, ordea, simple samarra deritzat. Denboran zehar ez da ezer berdin, aurretik zegoen bezala, mantentzen. Denboraren joanak ororen aldatzea dakar eta zerbaitek irauten badu, garai berrietara moldatu delako irauango du. Hemen legoke, ene ustetan, gure pastoral zaharra oraindik bizirik egotearen arrazoiak. Beste herri teatro europear batzu ez ziren eraberritu eta desagertu ziren. Gurea aldiz, bizirik bada, eraberritu delako da, eboluzionatu duelako, osagarri berriak bereganatu dituelako.

Ausardia lirudikeen arren, genero zahar honetan beste sinkretismo eredu bat eman dela esango nuke. Gauden mende honen erditik aurrera, Etxahun Iruriko, Casenave eta besten esker aldakuntza handi bat gertatu da Antzezmodu zaharra mantendu dute, baina gaien aldetik, bai Zuberoa bertako, bai beste Euskalernetako pertsonaia edo sujet historikoak gero eta gehiago ematen dira. Honen ondorioz indarberrituta azaltzen zaigu teatromodu hau, azken urteotako emanaldiek frogatzen duten bezala.

Beraz, agirian dago, pastorala garai honetan azaltzen duen egoeraren aurrean, jardungai zabal eta ikuspegi anitzetako ikerkizun bihurtzen ari zaigula. Honetaz ni baino jantzia-

(5) Peyregne, L.: «Casaurang de Lanne et son adaptation de la pastorale Mardy Gras». Pau, 1978
Mozos, I.: «Ihauteria euskal literaturan». Eusko Ikaskuntza Donostia, 1986.

(6) Peyregne, L.: aipatu liburuan 207 orrialdean eta Le Menn, G.: «Histoire du Théâtre populaire breton», SKOL (Institut culturel de Bretagne-ren aldizkaria), 1980.74 or.

(7) Hérelle, G.: «Les Théâtres ruraux en France». Champion. Paris, 1930.

(8) Garamendi, A.: «El teatro folklórico vasco, perspectivas de investigación». In Congreso de Literatura. Castalia. Madrid, 1989. 527-545 orr.

(3) Bajtin, M.: «La cultura popular en la Edad Media y el Renacimiento. El contexto de François Rabelais». Barral. Barcelona, 1974.

(4) Fernández Albadalejo, P.: «La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa». Akal. Madrid, 1975.

gorik mintzatu den arren (8), bizpahiru puntu seinalatu nahi nuke, gertaera literario honen aurrean aukeratu edo hartu beharreko erizpide eta jokabideez.

Eskuartearen duguna ondo ezagutzen salatu behar dugu (ezkribu zaharrak aztertu, argitaratu etab.), baina nola ere ez, zerbait geure, bakar edo isolatua balitz bezala. Europa mendebaldeko herri tradizioaren ekarpen garrantzitsu baten aurrean gaude eta kontuan hartu behar ditugu beste herrietan gai honekiko dituzten arazoak, askotan gurean antzeko edo berdintsuak: bretoiak eta bearnesen teatroari buruz zerbait gehiago jakitea onuragarri litzazuke, gurean izan litzaketen aplikazioei begira.

Aspaldian antzeztan ez diren obra tradizionalak eredu berriak eskain diezazkigukete. Antzerti jaharraren errepresentazio kodean ezetik, gaietan eta testuetan beretan ere baliapide egokiak egon litezke, muntaia berriak egiteko orduan onuragarri gertatu ahal direnak.

Ezgenuke baztertu behar antzerti honek izan dezakeen balio hezitzailea. Gure herri literaturaren beste osagarriek (bertsolaritza, kontalantza, baladak eta atsoltzak) eskola jardunetan azken aldietan izan duten sarbidea ikusita, zergatik ez bilatu teatro umil hau bertara helerazteko modu egokirik? Aurrerapauso handia izan zen, ene ustetan, Sehaskako jendeak Abadia pastorala eman izana aurreko urtean.

Pastoralan buruzko eritziak neurri handi batean aldatu egin dira. Baina errealtateak berak aldarazi dituela esango nuke. Ez da halako ikerkuntza goi mailako baten emaitza izan eritzi aldatze hori. Duela berrogei bat urte honako hau idatzi zuen Telesforo Monzón, teatrogile eta zuzendari ezagunak.

«Itxasoko olatuak bezela dira Pastualak ere. Iluntzak izaten diran bezelako: berdinak iduri eta berezkoak izan. Orrek ematen omen dio itxasoari —eta mendian- edertasun. Baita

Pastualeri ere, esango nuke nik, Pastualak oro —asmoz, tajuz, itxuraz, jantziz, kihuz, erranez, abestiz, bertso-neurriz eta abar— elkarren antzekoak izanagatik, bakoetak bere giroa ekartzen baitu. Bere gisa. Eta gisa orrek pastual bakoetxari bere usaina ematen. Bere berezkoa. Bere edertasun-maila ere. Pastualak ezpailirake, ene ustez, bakoetak ibiltzen duen gaigatik berezi bear. Erri edo talde bakoetak bere ikusgarriari ematen dion gurpillagatik baño. Napoleon izan edo Charlemagne, eiek nun eta noiz sortu ziran bario garrantzi aundiagoa du zuberotar batentzat dantzari potolo zalu orren dantza-gisak. Giroa nagusi, pastualetan. Gaia aitzaki. Pastualetako gai bakarra auxe baita: gaiztoak oro prestuen azpirat ekarraraztea. Zuriak on eta gorriak tzar. Bertze dena dugu... giroa!.. (9).

Handik hogeitamar bat urtera «Antzerti», Kidego Autonomoko antzerti sailak antolaturiko bidaian parte hartu genuen. Casenaveren Pette Basaburu pastorala ikustera abiatu ginen, Europako antzerkilari sona handiko batzuekin batera. Txundituta gelditu ziren, baina zalantza handiak izan ziren orduan teatro mota honi buruzko nondik norakoaz, tradizioari heldu beharraz eta abar (10). Handik hona zenbait topiko edo aurreritzi bertan behera erori dira. Pastoral hegoaldeko frontoietan ikusi ahal izan dugu. Maskarada bera ere indarberrituta etortzen zaigu urtero. Monzonek aipatzen zuen «giro berezko» horrek bere horretan segitzen badu ere, badirudi euskaldunok jabetzen hasiak garela bere garrantziaz. Emanaldi berriak «reclamo turístico»ak edo «estrecho localismo»z beteak edo antzinako eredu tradizionalen «pálido remedo»ak (11) izan daitezkeen beldurrak edo aurreiritziak ez gaitu atzera eragin behar.

Azken batean, euskararen eta euskal kulturaren eremu simbolikoa zabaldu eta aberastean dago arazoa. Baina baita ere, kultur adierazpide berriak bilatzeko helburuz, herri tradizio europear bat hobeto ezagutarazi eta mantentzean, datozen belaunaldi berrien probetxu eta onerako.

(9) Monzon, T.: «Sagar-lore, kirkirra, kuku ta pastualak», ALDERDI aldizkaria, 1953 (bere obra osoetatik aterea)

(10) Ikus R. Salvat edo A. Boadeliaren iritziak ANTZERTI berezia aldizkarian, 3-4 zenb. 1983

(11) Garamendi, A.: «El teatro folklórico vasco», tesi doktora. Gasteiz, 1988. Arg. gabea.